

Praga'tik Paris'a

1968-ko urteak ez ditu Kondairako ilunpeak bazuko; gaur arte gerta-turik dagena aski itzako, soilik, 1968-ko urtea etorkizunean gogoan-garri izateko.

Eskozia'k, Quebec'ek, Bretaña'k eta beste zenbait eskualdek, zapal-dutako etnien bultzada indartsua erakutsi dute: erresuma zaharreko ueste ona kaxkartzan ari da edonun, eta bere ordez hizkuntza oñarriritzat daukaten herrien kontzientzia eta bizi-nahia sendotzen. Fenomenu hu-nen kaxka oso sakona da; eta fol-klorekeriaz besterik somatzen ez du-tenak, kolpe latz askoren jasale ge-ratuko dira urrengo urteetan. Etnien zuzpertzeta eta erresuma zaharren erortzea gertaera berberaren bi al-derdiak dira; eta biek dituzte sus-trai eraubkaitzak.

Beste gertaera-sail bat gelditzen ari da gailien aurtengo aste hauetan: Praga'ko aldetuntza sakonak batetik, Paris'ko «commune etudiante» dala-koak bestetik.

Ikasleen beren mugimendua ez da dana, ez da garrantzitsua ere be-har bada. Ikasleek, ordea, XIX-gn. mendetik aintzatzotzat hartu izan du-gun politika-mundu OSOA arbulatu dute. Eta hauxe da funtsezkoa; ez hunek edo harek esan duen xeheta-sun bat. Rudi Dutschke eta Cohn Bendit ez dira pentsaeraz alkarren-gandik oso urrun. Ikasleen gertaera-sail hortan, loturarik be ahal dago?

Axaleko sasalazapena oso ezagu-na da: «Ikasleen kontuak dira! Beti gertatu izan dira horrelako istilluak! Betikoa da!».

Hori, ordea, sasi-azalpen bat da. Gure begien aurrean gertatzen ori dana fenomeno larri bat da; eta fe-nomenu horren ezagugarri nagusia hau da (politikari gagoziolariak, ja-kilak): eker berri bat, mundua guz-tiz ezesten duen gertaldi sutua. Praga'n eta Paris'en, ikasleetan eta intelektualetan, burges erresuma ba-tean eta sozialista erresuma batean batera, ez daal marxismo-lenini-

mo ofizialaren barruan sortu. Bes-te hitz marxismo-leninismo ofi-zialetik eras at eta kontra bai-zik. Beste hitz batzutan: Praga'n eta Paris'en marxismoaren krisia gelditu da nabarmenik. Eta Cohn Bendit'en esan gogorra ego-raren eredu da, eta etorkizunaren aintzindari: segurki, «Stalinismoaren ustelkeria gure atzetik datorrelarik, pozgarri zait manifestazio hunen aintzindaritzan aurkitzea». Zein izan da «L'Humanité»-ren erantzuna ondoko egunetan? Cohn Bendit Pompidou-ren jokoan eroria zala!

Trotskismoa? «Anarko-maoismoa», joan dan astein «The Observer»-en delitura erabiltzako? Zorbaiz bai; bai-na gehiago ere bai, nik uste.

Aste hauetako gertaeretan, kapi-talismoaren kontra eta komunismo-aren kontra altxatu da gertedia: biak salatu ditu gizonaren zapaltzaille-tzat. «Condiciones objetivas» dala-koen predikatzaille amorratuak, «menturazale» batzuen «txorake-rien» kontra jarri dira hasieratik; kontra egon dira Imoki Billancourt eko lantegi-ateetan, langileen eta ikasleen arteko batasuna frenatuz; eta hasieran eta gero, «saisa» har-tatik ezer onik ezer ezin zitekeala sifisturik.

Egia, ordea, besterik izan da: in-telektualek eta gazteek, Unibertsi-dadean eta lantegietan, marxismo ofizialaren kontra albarazi dute mo-gimendua. Ezker aldetik, beraz, Ko-munista Alderditik kanpora daude-nek lortu dute azkartar berpizte bat. Frantzia'ko gazteek piztu dute Eu-ropa guztian itxaropenaren garra.

Zein ziran, beraz, herriaren buru-zagitza berriak agerrarazi dituzten baloreak? Zalanza txikia izan dite-ke huni buruz: sozialismoa askata-sunean.

Praga'n eta Paris'en (eta Varso-

via'n Gomulka'ren astindua etorri ar-te) ukatu egin zaio Komunista Al-derdiari bere lehendakariitza. Bere geldikeria harroa eta dogmatikoa kaltegarritzat salatu da. Eta Praga'ko «alderdigabeek» beren lerenen-go bilkura izan dutenean, «gizart sozialismoa»-ren alde burrukatzeko agindu dute; eta hau geldieka eta kaleraño betota zegoen bil-ekuan. Bigarren Budapest baten zehfek ez dute txekotar herria kikitidu.

Gaurko burges soziedadea dese-gin nahi da han eta hemen: baiñan askatasunean, pluralismoan, auto-jestioan, autonomian, federalismoan, behetik gorako demokrazia egiazko baten bidez. Bakunin piztuko balitz, ba luke zertan pozturik... Marx bera da koloka dagoena; eta Lenin guztiz gauditza.

Ez dakigu gaur (Maiatzaren 19-an) Frantzia'ko gertaera zertan geldi-tuko diran. Egotea larria da. Pompi-dou'ren gobernuaren egunak azke-netan daudela dirudi; eta behar bada ezkartar aginte bat nagusi dakioke De Gaulle'ri berari. Garrantzi haun-dia luke hunek Europa'ko etorkizu-nerako, eta sozialismo berri baten garaltzapenerako.

Edo-ta ere, ba dute Euskal Herri'ko intelektualek zertaz gogoeta egi-nik. Frantzia'n —eta beste herrian ere bai— ezkartar sozialismo giza-tar bat mundu sor ditekane eta nun-dik ez, garbi agertu da. Gauza bera Praga'n Mosku'ri buruz. XIX-gn. mendeko erakundeen eta puñien garaia pasatu dago. Gu guztion eskuetan dago, beraz, geure sozieda-deak behar duen sozialismo-mota berria ssmatzeta eta erakiltzea.

Praga'ko eta Paris'ko gertaerak, hortaz, itxaropen-turri oparo bat izan dira guretzat.

LARRESORO